

Emily
BRONTË

IRENE ALDASORO

Gailur Ekaiztsuak



erein & igela

EMILY BRONTË

Gailur Ekaiztsuak

Irene Aldasoro
Itzultzailea

erein & *igela*

Jatorrizko izenburua:
WUTHERING HEIGHTS

Liburu bonen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.

Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga
© Itzulpenarena: 2017, Irene Aldasoro
© Hitzaurrearena: 2017, Xabier Olarra
© Argitalpen honena: 2017, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.

ISBN: 978-84-9109-250-6
Legezko Gordailua: SS-1223/2017



EMILY BRONTË (1818-1848)

HITZAURREA

EMILY BRONTËK 30 urte bete gabeak zituen bere lehen eta azken nobela argitaratzea lortu zuenean, 1847an. Ez zuen inolako arrakastarik izan. Ahizpa Charlottek bai, ordea, *Jane Eyre* bere lehen nobelarekin, garai bertsuan. Lehenago ere hiru ahizpak –bost ziren emakumezkoak sei senidetatik– elkarrekin (edo elkarrekiko lehian) egina zuten sarrera idazkuntzaren ate estutik, poeta gisa. Ezin egin sarrera apalgarriagorik: hiru ahizparen artean osatutako poema-liburuak ez zuen aurkitu erosle bakarra ere idazleko: bi ale besterik ez omen ziren saldu.

Hirukote gisa abiatutako bidean jasandako triskantzaren ondoren, bakoitzak bere barrutik zetorkiona emateari ekin zion, antza, eta hor lortu zuten arrakasta: Charlottek berehala eta Emilyk, berriz, hil ondoren; bien kasuan, mendeetan zehar iraun duen arrakasta, eta, *Gailur Ekaiztsuen* kasuan, oraindik dirauena, film moduan behintzat, ez baitira alferrik egin XX. mendean dozena bat bertsio. Hori dugu klasikoen abantaila, garaikideez gain idazlea hil eta mendeurrenean jaiotakook ere goza dezakegula haren emaitzez: haren lan horiek ahalbidetzen dituzten irakurketa desberdinetan oinarriturik –fideltasun handiz edo ez hainbestekoz–, gaur egungo sortzaileek badute aukera paperean gelditutakoa berregin, berreraiki eta berpizteko.

Thorntonen jaio zen Emily Brontë, Ingalaterran, 1818an. Beraz, haren jaiotzaren bigarren mendeurrenerako puntuan

heldu da euskarazko bertsio hau. Brontë ahizpen aita, Patrick Brontë –benetako deitura Brunty zuen irlandarra–, kezka intelektual handiko elizgizona, errementari, oihalgile-mutil eta bere herriko eskolako maisu izana zen, elizgizon egin baino lehen. Bi liburu ere idatzi zituen, eta baita poemak, liburuxkak eta sermoiak ere. Beraz, aitaren irudimen buru-beroaz inguraturik hazi ziren Emily eta haren anai-arrebak: teologia ikasten ari zela, Brunty deitura Brontë bihurtu omen zuen Brunty jaunak, grezieratik eratorritako hitza (“ortots” esan nahi omen zuena).

Ama, Mary Branwell, 1821ean hil zitzaizenean, Charlotte eta Emily Brontë elizgizonen alabentzako Cowan Bridgeko ikastetxe berezi batera bidali zituzten, Mary (1814-1825) eta Elizabeth (1815-1825) bi ahizpa zaharrenekin batera. Ikastetxe horren fundatzailea, William Carus Wilson, gizon miretsia zen bere garaiko kristau britainiarren artean. Haren hezkuntza-ideiak, ordea, ez ziren oso aurreratuak: bere ikasleen arimak salbatzeko eta bekaturako edozein grina haiengandik erauzteko, gorputzak hilduratzeari irizten zion biderik egokiena, besteak beste, gosea eta hotza pasaraztea eta zigor fisiko latzak erabiltzea. Ondorioz, Mary eta Elisabeth Brontë gaixotu egin ziren, eta tuberkulosiak jota hil, hurrenez hurren hamaika eta hamar urte besterik ez zituztela. Emilyk eta Charlottek nola edo hala aurre egin zioten bizimodu hari, baina, geroztik, Emily makala izan zen beti osasunez, eta tuberkulosiak eraman zuen hogeita hamar urte zituela. Cowan Bridgeko barnetegi horretako esperientzia lazgarriaren berri *Jane Eyre* nobelan eman zigun Charlotte Brontëk. Aitak etxera ekarrarazi zituen bi ahizpak, eta hor gehiago estutu ziren bizirik zirauten lau senideen arteko loturak.

Hasieran behintzat Brontë ahizpak giro bikainean bizi izan ziren beren literatur grinari bide emateko, baina ez zen batere erraza izan haientzat beren idatziak argitaratuta ikustea. Diru-

dienez, hala ere, idaztea, giro hartan, jolasa besterik ez zen, bizi ziren inguru latzean beste ezer baino gusturago egiten zutena: istorioak sortu, poemak idatzi, eta, batez ere, eskura zutena irakurri, hori bera ere ez baitzegoen edonoren irispidean. Hala, esku artean izan ohi zituzten *Blackwood Magazine*, *Edinburgh Review* edo *Fraser's Magazine*, non agertzen baitziren –eduki politiko eta literarioaz gain– izu eta misteriozko kontakizunak, eta baita poemak, eta etxe xarmatuak eta fenomeno *bitxiak* hizpide zituztenak ere.

Urte haietan, hezkuntzaren bidea, ez dago esan beharrik, estu samarra zen, eta aita elizgizona zelako lortu zuten Brontë ahizpek eskolatuak izatea eta irakurtzen ikastearekin batera beren baitatik zetorkiena idazten hastea. Charlotten berak kontatzen duenez, dibertitzeko, “hain zuzen ere, eskualde apartatu samar batean bizitzearen ondorioz –non kultura ez baitzegoen oso zabaldurik, eta, horrenbestez, han ez baikenuen inolako akuilurik gure etxe-barneko zirkuluaz kanpora harremanik izateko–, elkarrri egiten genion konpainiaren, liburuen eta ikastearen pentzuan geunden”. Halako lur emankorrean, beraz, ez da harritzekoa aitaren etsenplu bidezko irakaspenak fruitu ederrak eman izana. Brontë anai-arrebek alegiazko Anglia eta Gondal izeneko erreinetan kokaturiko kontakizun sail luze bat osatu zuten: Angliaren jabeak Charlotte eta P. Branwell anaiak ziren eta Gondal, berriz, Emily eta Annerena zen. Dozenaka koadernotan jaso zituzten bi erreinu horien kronikak, nahiz eta Emilyk idatzitakoak galduak diren.

Idazle-karrera “labur” horretan, entrenamendua, ikusten denez, umetatik hasi zen. Esan dugu badirudiela elkarrekiko lehian edo apustu gisa idatzi zituztela hiru ahizpa gazteenek –Charlotte, Emily, Anne– lehenik *Poemak*, *Currer*, *Ellis eta Acton Bellek idatziak* izenburuarekin argitaratu zuten liburua.

Izengoitietan hiru ahizpen inizialak gordetzen dira, eta beren dirutik ordaindu omen zituzten argitalpenaren kostuak, batez ere Charlotteren irabazietatik, antza. Esan bezala, salmentek ez zieten batere bihotzik eman hortik jarraitzeko, baina zer egin behar zuten Yorkshireko paramoetan XIX. mende hasiera hartan? Nola dibertitu Hawortheko bakardadean, ez bazen irakurriz eta idatziz?

Brontëtarrek batera nabarmentzen badira ere XIX. mendeko literaturan, hasiera hartako harreraren ondoren Emily agertzen da besteen gainetik, eta haren poemak aski estimatuak badira ere, *Gailur Ekaiztsuak* ageri zaigu haren lan nagusi gisa.

Hala ere, Charlottek lortu zuen lehenik arrakasta bere *Jane Eyre: autobiografia bat* lanarekin. Are gehiago, Emily hil zenean, ahizparen nobela “hobetzen” eta “txukuntzen” saiatu zen Charlotte, eta baita bere bertsio hori argitara eman ere. Bada esaten duenik Charlottek inbidia ziola ahizpari, eta historiak ere badi-rudi arrazoi eman diola: haren lana, adituentzat, ahizparenaren azpitik gelditu da denbora aurrera joan ahala. Izan da, halaber, *Gailur Ekaiztsuak* Charlotteren lana dela frogatzen saiatu denik ere (Ikus *The Key to the Brontë Works*, John Malham-Dembleby, London, 1911).

Umetatiko amodio bortitz, ero, galgarri, menderaezin baten historia da *Gailur Ekaiztsuak*. Minbizi bihurtutako bizi-min baten historia. Heathcliff da nobelaren ardatza. Machiavellorekin eta Sadeko Markesarekin lotu izan dute Heathcliff pertsonaia. Obsesio baten kontakizuna dugu, beraz, *Gailur Ekaiztsuak*. Obsesio horren neurria eta seta Heathcliffen makiabelismoak berak ere ematen digu: Catherine Earnshawk bere anaiorde Heathcliff bazter utzi duenean Edgar Lintonekin ezkontzeko, Heathcliff urrundu egingo da, eta, itzultzen denean, Isabella Lintonekin ezkonduko da, bere Catherine maitearen koinata-

rekin. Honako bi helburu hauek ditu: Earnshawtarren etxea bereganatu, bere umetako maitearengandik hurbil egoteko, baina, batez ere, jabetzak ematen dion botereaz inguru osoan bere indarra erakusteko. Amodio destainatu baten istorioa da, beraz, *Gailur Ekaiztsuak*, baina hori baino gehiago ere aurkituko dugu hor: amodio gutxietsiak eragindako mendeku baten kontakizuna, pasio menderaezin batena –menderagarria bada pasio dei ote lekioket?–, baretu ezineko min bizi batena. Maitale gutxietsiaren mendekua, beraz, besteak beste. Rimbaud poeta frantsesaren honako hau dakarkit gogora:

Itzuliko naiz, burdinazko lohadarrez, azala belzturik, begi-sumin:
arraza indartsu batekotzat joko naute, nire maskaraz kanpotik.
Urrearen jabe izango naiz: alfer eta anker (Arthur Rimbaud,
Denboraldi bat infernuan, Odol gaiztoa atala).

Nondik atera zuen ia bizi osoa Hawortheko bakardadean eta etxe ondoko paramoetatik atera gabe eman zuen neskak?, galdetu izan diote beren buruei idazle eta aztertzaile batek baino gehiagok. Badirudi etxetik kanpo Bruselan emandako tarte laburrak, alde batetik, erromantiko alemaniarrek idatzitakoa ezagutzeko parada eman ziola. Baina horrek adinako munta edo handiagoa du, nire ustez, etxean bertan ikusitakoak: aita, dirudienez, oso gizon autoritario eta zorrotza zen; baina, batez ere, bere anaia P. Branwellen oihartzuna sumatzen dugu *Gailur Ekaiztsu*etako pertsonaia nagusiaren baitan: P. Branwell alkoholiko eta opiomanoa zen, eta, Emilyk aski zuen haren krisi zalapartatsuei eta ondorengo barealdiei erreparatzea Heathcliff bezalako pertsonaia maltzur eta gupidagabea mamitzeko. Haren amaierako izaera-aldaketa nabarmenak –krudeltasun eta ankerkeriarik gaiztoenetik ezaxola eta onberatasunera– horixe iradokitzen dute.

Hona zer dioskun Somerset Maughamek *Gailur Ekaiztsuak* eta Emily Brontë hizpide dituela:

Gailur Ekaiztsuak amodiozko istorio bat da, sekula idatzi den bitxiena agian, eta alderik bitxiena, ziur aski, hau du: maitaleak “kastitatean” irauten dutela. Catherinek benetako maiteminez maite du Heathcliff, Heathcliffek bera maite duen bezalako maiteminez. Edgar Linton senarrarenganako, berriz, tolerantzia atsegin –maiz etsi– bat baizik ez du sentitzen. Harrigarria egiten zaigu bi maitale horiek, maitasunak akiturik zeuzkan bi pertsona horiek, aurre egin beharko zioteten pobrezia zenbatnahikoa izanik ere, nola ez zuten elkarrekin ihes egin, harrigarria egiten zaigu zergatik ez ziren benetako maitale bihurtu (*Ten novels and their authors*, London, Heinemann, 1954).

Eta ez dira hitz alferrak, aski baitugu Brontëk bere nobelan idatzi zuena irakurtzea ohartzeko horixe dela esan nahi diguna:

Lintoni diodan maitasuna basoetako hostaila bezalako da: denborak aldatzen du, ondo dakit hori, neguak arbolak aldatzen dituen bezala. Heathcliffi diodan maitasuna, berriz, azpiko harkaitz betierekoen antzekoa da: atsegin ikusgarri gutxiren iturri, baina beharrezkoa. *Nelly, ni naiz Heathcliff!* Hura nire gogoan dago beti eta beti: ez atsegingarri gisa, ez ni neure buruarentzat beti atsegingarri naizen baino gehiago, baizik eta neure izate gisa. Beraz, ez berriz aipatu gu banantzekorik: hori egin ezinezkoa da, eta...

Emily Brontëk erakusten digu, nire ustez, bere bi pertsonaia nagusiekin identifikatzen dela: Catherinerekin lehenik, baina beharbada are gehiago Heathcliffekin: “Nelly, I am Heathcliff” horrek, non gerora “*Madame Bovary c’est moi*” ospetsu hark izan lezakeen jatorria, harrigarria badirudi ere, horrelako zerbait adierazten duela esango nuke. Izan ere, Emilyren sentipenen bortitza haren poema batzuetan nabari dezakegu, hala nola, esate baterako, esperientzia mistikoetatik hurbil agertzen

digun honetan, non aipatzen baitigu zeinen latza zaion “zeru” horretatik (musika mutu batek, harmonia esanezin batek –sekula amestuko ez nukeenak– baretzen dit bularra, harik eta Lurra galdua izan arte niretzat) jaitsi beharra eta gorputzaren zamapera itzuli beharra:

*Bai latza dela etena, bai bizia agonia:
Entzumena berriz erne, zoli dut berriz begia
Taupadak sentitzen ditut, itzuli zait konortea
Arimak gorputza hor du, gorputza, a zer katea!*

(The Prisoner, Poems, by Currer, Ellis and Acton Bell, hasieran aipatu bezala Emilyk goitizenez 1846an argitaratua)

Suma daiteke nobela honen zantzuren bat beste nobela ospetsu batean: Scott Fitzgeralden *Gatsby* handian hain zuzen. Ez naiz eraginez eta holakoez ari, are gutxiago intertestualitateaz eta holakoez, baizik eta nolabaiteko antza duten edo aurki dakizkiekeen zenbait elementuz. Alde batetik, zilegi da Heathcliff eta Gatsby parekatzea, amodio ezinezko eta galgarria bizi baitute bi pertsonaiek. Gatsby destainatuak infernuetara jaitsi beharko du: gerratik eta auskalo zer negozio zikinetatik pasatu beharko du bere maite Daisy “berreskuratzeke”; aberats bihurturik, gaitzetsia izateko arrazoiari –behar bezain aberats ez izatea– buelta ematea espero du. Auskalo zer bidetatik egoera bere alde duenean, haren etxearen parean jarriko da bizitzen –badiaz beste aldean, hori bai, Heathcliff *Gailur Ekaiztsuetan* bezala; hurbil, baina tarte dezentea utzita– bere errekonkistari ekiterakoan. Bi kasuetan, egoera- eta estatus-aldaketa erabat misterioetsua da: ez dakigu nola lortu duten aberastea. Bi pertsonaiek beren sorlekutik urrundu dira, eta aberats bihurturik itzuli. Saiatu arren, ezin diote egoerari buelta eman. Amodio tragikoak dira

biak, nahiz eta tragedia oso modu desberdinetatik etorriko den eta Heathcliffek bizitzaren bukaeran tragedia onartuko duen: izan ere, harentzat, maitearekiko batasun mistikoa lortzeko egindako guztiak, gaiztakeria, min eta inguruan eragindako kalte guztiak, merezi izan duela dirudi.

Horra, bada, aukera, XIX. mendeko klasiko handi baten irakurketara itzultzeko, eta, hortik, XX. mendeko beste horretara jauzi egiteko.

Xabier Olarra

EMILY BRONTË



Gailur Ekaiztsuak

I. ZATIA

I. KAPITULUA

1801. ORAINTXE ITZULI NAIZ etxejabea ikusten izanda –kexarazi ahal izango nauen auzotar bakarra bera–. Hauxe bai lurralde ederra! Ingalaterra guztian, ez dut uste topatu ahal izango nuenik gizartearen zalapartatik hain erabat apartaturiko bizilekurik. Zeru perfektua misantropo batentzat: eta Heathcliff jauna eta biok hain gara pare egokia bakardadea geure artean erdibanatzeko! Aparta gizona! Ez du asko sumatu nolako bihotz-samurtasuna eragin didan ikusteak haren begi beltzak bekainen azpian mesfidati saihestu direla, nik zaldia gelditzean, eta haren hatzak hondorago babestu direla, errezelozko erabakimenez, txalekoaren barruan, nik neure izena adieraztean.

–Heathcliff jauna? –esan diot.

Buruarekin egin du baietz.

–Lockwood jauna naiz; zure maizter berria, jauna. Iritsi eta hainbat arinen etortzeko ohorea egin diot neure buruari, adierazi nahi baitizut espero dudala ez zintuela gogaitaraziko Birigarro Gurutzeko Etxaldea hartzeko erakutsi dudana setak. Atzo entzun nuen erabili dituzula asmoak...

–Birigarro Gurutzeko Etxaldea nirea da, jauna –eten dit hark, bigin-keinu bat eginez–. Ez nioke emango inori ni gogaitarazteko aukerarik, eragotzi ahal banu. Sartu barrura!

«Sartu barrura» hori hortz artean esan du, eta «Zoaz infernura» adierazten zuen sentimenduz. Heathcliff bermaturik zegokion langak ere ez du egin hitzon alderako mugimendurik,

eta uste dut horrexek bultzatu nauela gonbita onartzera: jakin-mina piztu dit ni neu baino ere askoz gordeago zirudien gizon horrek.

Ikusi duenean nire zaldiaren bularraldea langari bultzaka, orduantxe luzatu du eskua langa zabaltzeko, eta, gero, muker, galtzadan gora ekin dio nire aurretik, eta, atarian sartu garenean, dei egin du:

–Joseph, hartu Lockwood jaunaren zaldia; eta igo ardo pixka bat.

«Hau izango dugu otseintza guztia, nik uste –eraman nau pentsatzera agindu bikoitz horrek–. Ez da harritzekoa belarra luzaturik egotea harlauzen artean, eta ganadua beste hesikimatzailerik ez izatea».

Joseph adineko gizon bat da; ez, adinekoa ez, zaharra: oso zaharra, agian, nahiz zindoa eta gihartsua.

–Jainkoak lagun gaitzala! –esan du bakarrizketan, higuinezko ahots apal erre batean, zaldia kentzen zidalarik, eta hain saminki begiratu dit aurpegira aldi berean, ezen errukiturik pentsatu baitut jainkozko laguntzaren beharrean egongo zela bazkaria digeritzeko, eta haren dei deboziozkoak ez zuela zerikusirik ni ezustean etorri izanarekin.

Wuthering Heights (Gailur Ekaiztsuak) du izena Heathcliff jaunaren egoitzak, «Wuthering» delarik probintziako adjektibo adierazgarri bat, etxea dagoen tokiak ekaitzaldietan jasaten duen inarrosaldi atmosferikoa deskribatzen duena. Egurats garbi bizkortzailea izan behar dute han goian, baiki, sasoi guztietan. Imajina daiteke nolako indarra izango duen ipar-haizeak hegian zehar, erreparatzen bazaio etxearen azken muturreko izei sastar bakan batzuen makurdura gehiegizkoari eta ilara bat elorri ziztrini, denak adar-besoak alde batera luzaturik, eguzkiaren limosnaren irrikaz bezala. Zorionez,

arkitektoak etxea sendo eraikitzeke aurreikuspena izan zuen: leiho estuak oso sakon sarturik daude horman, eta kantoiak, berriz, harri handi irtenez babesturik.

Alartzea igaro baino lehen, fatxada guztian eta batez ere ate nagusiaren inguruan oparo diren hainbat zizel-lan grotesko miresten geratu naiz, eta, atearen goiko aldean, grifo apurtuen eta mutiko lotsagabeen nahas-mahas baten erdian, «1500» urtea hauteman dut, eta «Hareton Earnshaw» izena. Pozik egingo nituzkeen iruzkin batzuk, bai eta etxearen historiaren laburpen bat eskatu ere jabe kopetilunari, baina hark atean ageri zuen jarrerak bazirudien eskatzen zuela sar nendila bizkor edo alde egin nezala behingoz, eta ez nuen areagotu nahi haren ezinegona barrunbea ikuskatu aurretik.

Pauso batean jarri gara familiaren egongelan, aurrez inolako salarik edo pasabiderik igaro gabe. Hemen, gela horri esaten diote «etxea» batez ere. Sukaldea eta solasgela izan ohi ditu, gehienetan; baina iruditzen zait Gailur Ekaiztsuetan beste alde batera erretiratuta egon behar duela sukaldeak; nik behintzat oso barrualdetik zetozen hizketa-hots bat eta sukaldeko ontzien kliski-klaska bat hauteman ditut, eta ez dut ikusi txigortze-, egoste- edo erretze-aztarnarik tximinia handiaren inguruan, ez eta kobrezko zartaginen eta eztaizuzko iragazkien distirarik ere paretetan. Mutur batean, bai, bazeuden peltrezko plater itzel batzuk, ilaran, zilarrezko pitxer eta antoxinekin tartekaturik, bata bestearen gainean lerroz lerro sabairaino pilatuak, haritzezko arasa handi batean, modu zoragarrian islatzen bai argia eta bai beroa. Sabai hori tronatu gabea zen; haren anatomia biluzik ageri zitzaion begi aztertzaileari, gune batean izan ezik, zeina olo-opilez eta txahal-, ardi- eta txerri-izter mordoz kargaturiko zurezko lauki batek ezkututzen baitzuen. Tximiniaren gainean arma zahar zantar batzuk zeuden, eta zaldun-pistola pare bat;

eta, apaingarri gisa, kolore biziz pintaturiko hiru poto, ilaran, tximinia-hegalean. Zorua harri zuri leunekoa zen; aulkiak, berriz, bizkar-luzeak, egitura soilekoak, berdez pintatuak: bat edo bi beltz astun ere sumatzen ziren ilunpean. Arasaren azpiko arku batean, gaztaina-koloreko pointer txakur eme itzel bat zegoen etzanda, txakurkume samalda bat inguruan intzirika zebilkiola; eta beste txakur batzuek ere beste zokondo batzuk hartuta zeuzkaten.

Gelak eta altzariak ez zuketan ezer apartekorik iparraldeko nekazari arrunt, aurpegi-zurrun, belaunetarainoko galtzek eta polainek zango sendoak nabarmenagotzen dizkieten horietariko batenak izatera. Era horretako gizabanakoa, bere besaulkian eserita, mahai biribil bat aurrean eta garagardo pitxer apartsua mahai gainean, erraz ikusiko duzu muino arte hauetan, bost edo sei miliako inguraldi bat egiten baduzu bazkalondoan, ordu jakin batean. Baina Heathcliff jaunak kontraste berezia egiten du bere bizilekuarekin eta bizitzeko moduarekin. Heathcliff ijito larru-beltz bat da itxurari dagokionez; jantzi-an eta maneretan, berriz, zaldun bat, hau da, lurjabe landatar askoren neurriko zaldun bat: narras samarra beharbada, baina ez tankera gaiztokoa bere zabarrean, gorpuzkera jasoa eta ederra baitu; eta betilun samarra. Baliteke gaizki heziaren harrotasun puntu bat ikustea zenbaitek harengan; nik elkartasun-oihartzun bat aditzen dut neure baitan, halakorik ez dela esaten didana; badakit, senez, sentimenduak nabarmen azaltzeko higuinak eragina dela haren isiltasuna, elkarri onberatasuna erakusteko higuinak eragina. Maitatu eta gorrotatu, biak gordean egingo ditu hark, eta ausarkeria gisako zerbait irudituko zaio maitatua edo gorrotatua izatea. Ez, arinegi noa. Liberaltasun handiegiz egozten dizkiot hari neure ezaugarriak. Heathcliff jaunak oso bestelako arrazoiak izan ditzake eskua ez luzatzeko ezagun-

usteko bat topatzen duenean, ni bultzatzen nautenen aldean. Hobe izango dut pentsatzea nire izaera berezi samarra dela: nire ama maiteak esan ohi zuen nik ez nuela inoiz izango etxe-giro gozorik, eta joan den uda honetan bertan ikusi ahal izan dut ez naizela horretarako batere duin.

Itsasertzean eguraldi bikaineko hilabete bat gozatzen ari nintzelarik, izaki guztiz liluragarri baten konpainian gertatu nintzen: benetako jainkosa bat zen nire begietarako, niri erreparatu ez zidan bitartean. Nik «ez nuen nire maitasuna adierazi»¹, hitzez; baina, begiradek mintzairarik badute, inozoena ere konturatuko zatekeen hezur-muinetaraino maitemindurik nengoela. Azkenean, ulertu zidan, eta hark ere begirada bat egin zidan, imajina daitezkeen begirada guztietan eztena. Eta zer egin nuen nik? Lotsaz aitortzen dut: neure baitara kuzkurtu nintzen, hotz, barraskilo bat bezala, hotzago eta barnerago begiratu bakoitzeko, harik eta, azkenean, neska gaixo errugabea bere zentzuan ote zegoen duda egitera iritsi zen arte, eta, uste okerra izan zuelako nahasmenduak gaina hartu ziolarik, handik alde egitera gogatu zuen ama.

Izaeraren ezaugarri bitxi hori dela eta, bihotz-gogortasun gupidagabearen ospea irabazi dut: zein gutxi merezia, neuk bakarrik dakit.

Etxejabea beheko suaren mutur batera aurreratu delarik, haren beste aldeko jarleku batean eseri naiz ni, eta, isilune bat betetze aldera, txakur ama laztantzekoa egin dut, hura, ume-

1 Jatorrizkoan, «never told my love», Shakespeareren *Twelfth night* (*Hamabigarren gaua*) obratik:

She never told her love,
Bat led concealment, like a worm i' the bud,
Feed on her damasc cheek.

zaintza utzita, nire zangoen atzeko aldeen usnan baitzebilan
otsoa bezala, ezpaina goraturik, bere hortz zuriak eransteako
irrikaz.

Nire laztanak eztarri-orro luze bat eragin dio txakurrari.

–Hobe duzu txakurra bakean uztea –marmarikatu du
Heathcliff jaunak unisonoan, ostiko batez eragotziz adierazpen
bortitzaokoak—. Ez dago losintxetara ohituta, ez da konpainia-
txakurra.

Gero, pauso handian alboko ate batera hurbilduz, dei egin
du berriro.

–Joseph!

Ulertu ezinezko marmar bat egin du Josephek sotoaren
sakonean, baina ez du igotzeko zantzurik erakutsi. Hala, nagusia
joan zaio behera, ni txakur eme gaiztoarekin eta harekin batera
nire mugimendu guztiak zorrotz zaintzen zituzten bi artzain-
txakur tximatsu beldurgarrirekin *vis-à-vis* utzita.

Txakurren betortzen ukiturik sentitzeko inolako gogorik ez
eta, geldi-geldi geratu naiz eserita, baina, isilkako irainak uler-
tuko ez zituztelakoan, begi-keinuak eta imintzioak egiten hasi
natzai zoritxarrez hirukoteari, eta nire fisionomiaren ezauga-
rriren batek hainbestearaino haserretu du damandrea, ezen, bat-
bateko furia batek hartu duelarik, belaunen gainera salto egin
baitit. Bultza egin, eta atzera bota dut, eta mahaiaren atzean
babestera joan naiz lasterka. Ekintza horrek, berriz, erlauntza
osoa aztoratu du: lau hankako dozena erdi bat deabru irten
dira, bakoitza tamaina eta adin batekoa, etzaleku ezkutuetatik
denen erdira. Konturatu naiz nire orpoak eta soingainekoaren
barrenak zirela erasoaren jomuga bitxiak, eta, borrokalari han-
dienak su-burdinarekin ahal dudan modurik eraginkorrean
blokeatuz, laguntza eskatu behar izan dut, hoska, ea etxekoren
bat agertzen zen bakea jartzera.

Heathcliff jaunak eta haren zerbitzariak patxada iraingarrian igo dituzte sotoko mailak. Ez dut uste ohi baino segundo bat ere bizkorrago mugitu direnik, nahiz eta etxe barruan atergabea izan txakurren haginka eta zaunken erauntsia.

Zorionez, sukaldeko bizilagun bat arinago heldu da. Andre sendokote bat sartu da lasterka gure artera, mantal barrena altxatuta, beso-hutsik eta masailak suak gorriturik, zartagin bat eskuan astinka; eta hain modu eraginkorreetan erabili du arma hori, eta mingaina, ezen sorginkeriaz bezala apalduz joan baita ekaitza, eta bera bakarrik geratzen zen, itsasoa haize indartsu baten ondoren bezala hatsanditurik, haren nagusia gertalekuan agertu denean.

–Zer demonio gertatzen da? –galdetu du Heathcliff jaunak, niri halako moduz begiratu ez ezin haren soa ia eramanezina gertatu baitzait trataera zakar horren ondoren.

–Zer demonio, seguru ere! –murmurikatu dut–. Deabruak harturiko harako urde-talde hark ere ez zukeen zure animalia hauek baino espiritu gaiztoagorik barnean, jauna. Berdin-berdin zenukeen ezezagun bat tigre samalda batekin uztea!

–Txakurrak ez dira sartuko ezer ukitzen ez duten pertsonekin –adierazi du Heathcliff jaunak, botila nire aurrean jarri eta mahaia lehengo lekura ekarriz–. Txakurrek ondo egiten dute erne egoten. Baso bat ardo hartuko?

–Ez, eskerrik asko.

–Hozkarik ez, ala?

–Hozkarik banu, hozkariak ere ezagun izango zukeen nire zigilua.

Irri zabal batean lasaitu da Heathcliffen begitartea.

–Tira, tira –esan du–, asaldaturik zaude, Lockwood jauna. Hona, hartu ardo pixka bat. Bisitariak hain bakan izaten dira

Emily Brontë

etxe honetan, ezen, ez nik eta ez txakurrek, aitortu behar dut, ez baitakigu halakoei harrera egiten. Zure osasunera, jauna!

Buru-makurtze bat egin, eta topari erantzun diot, kon-turatzen hasi bainaiz erokeria litzatekeela esku bete ttottoren portaera txarragatik muturturik jarraitzea. Gainera, ez nuen gogorik gizonari berriz ere nire bizkar barre egiten uzteko, haren aldarreak horretarako joera hartu baitu.

Hark –maizter on bat iraintzea zentzugabekeria litzate-keelako gogoeta zuhurak eraginda ziur asko– arindu egin du pixka bat bere hizkera lakoniko, izenordez eta aditz laguntzailez gabetua, eta interesatuko zitzaidala iritzi dion gai bat atera du: nire oraingo erretiro-lekuaren abantailen eta desabantailen gaineko jarduna. Iruditu zait zentzu handiz aritu dela aipatu ditugun gaien inguruan, eta, etxeratu aurretik, biharamunean beste bisita bat egiteko borondatea erakusteraino animatu naiz.

Berak, ikusten zenez, ez zuen nahi nire intrusioa inola ere errepikatzerik. Baina joango naiz, hala ere. Harrigarria da zein lagunkoi sentitzen naizen harekin konparatuta.

II. KAPITULUA

ATZO LANBROTSU ETA HOTZ etorri zen arratsaldea. Nire estudioko sutondoan geratzekotan bezala nenbilen, txilardi eta lokaztietan zehar Gailur Ekaizsuetara joaten ibili ordez.

Bazkaldu eta gora igotzean, ordea (N.B. Hamabiak eta ordu bata artean egiten dut bazkaria. Etxezainak, etxearekin batera etxearen parte gisa hartu nuen matrona-itxurako andreak, ezin zuen ulertu, edo ez zuen ulertu nahi, bostetan zerbitzatzeko egin nion eskaera), asmo nagi horrekin eskailerak igo, eta gelara sartzerakoan, bada, neskame gazte bat ikusi nuen belauniko, erratzez eta ikatz-ontziz inguraturik, ikaragarritzko hautsa harrotzen, garrak errauts pilen bidez itzaltzen ari zelarik. Ikuskizun hark atzera eragin zidan berehala. Kapela hartu, eta, lau miliako ibilaldia egin ondoren, Heathcliffen lorategiko atelangara iritsi nintzen elur-zaparrada baten lehen maluta arinak saihesteko puntu-puntuan.

Muino-gain gorri hartan izotz beltzak gogorturik zegoen lurra, eta aireak soin-adar guztiak dardararazten zizkidan. Langako katea askatu ezin nuenez, gainetik jauzi egin, eta bide harlauzatuan gora joan nintzen lasterka, bi aldamenetako andere-mahats banakatuen artetik, eta atea jo eta jo aritu nintzen, alferrik, hatz-koskorak sumintzeraino, harik eta txakurrak zaunkaz hasi ziren arte.

«Bizilagun zikoitzak! –jaurti nuen neure artean–. Merezi duzue zuen espeziekoengandik betiko apartaturik egotea, giza-

legerik gabeko abegi txar honengatik. Nik behintzat ez nituzke atear burdin-hagaz itxita edukiko egunez. Ez zait axola. Sartu behar dut!».

Hala erabakirik, heldu nion kisketari eta astindu nuen gogotik. Joseph aurpegi-ozpinduak burua atera zuen lastategiko leiho biribil batetik.

–Ze beha zu? –dei egin zuen—. Nausie artegiin da. Jun lastatei muturretik bueltan harekin hitz ein nahi baazu.

–Barruan ez al dago inor atea zabaltzeko? –hots egin nion, erantzun gisa.

–Andrea besteik ez, ta harek ez dizu zaalduko, eta segi zaata izugarri hori eitten gaue arte.

–Zer, ba? Ezin al diozu esan ni naizela, e, Joseph?

–Ez nik horratio! Nik ez dauket hor ze ikusiik –murmurikatu zuen buruak, eta desagertu egin zen.

Elurra mardul hasi zen. Eskutokiari heldu nion beste ahalegin bat egiteko asmoz, eta, orduan, mutil bat agertu zen atzeko larrainean, mahuka-hutsik, sarde bat bizkarrean zuela. Jarrai niezaiola hots egin zidan, eta han joan ginen biok, garbitoki batetik zehar, ikatz-estalpe bat, ponpa bat eta usategi bat biltzen zituen eremu lauzatu batean aurrera, eta, azkenean, aurreko aldian hartu ninduten gela handi, epel, argira iritsi ginen.

Distira zoragarri bat zerion gelari, ikatz, zohikatz eta egurrez egindako su handi baten argitasunean, eta mahaitik hurbil –arrats-otordu oparo baterako jarria zegoen mahaia– «andrea» ikusteko plazera izan nuen: ordura arte zenik ere susmatu ez nuen pertsona bat.

Buru-makurtze bat egin, eta zain geratu nintzen, eser nendila esango zidala pentsatuz. Begiratu zidan, bere aulkian atzerantz okerturik, eta ez zuen ez mugimendurik egin ez txintik esan.

—Eguraldi makurra! —esan nuen nik—. Beldur naiz, Heathcliff andrea, atear ez ote dituen pagatu beharko zuen zerbitzarien arta astitsuaren ondorioak. Lanak izan ditut haiei hemen naizela adierazten.

Emakumeak ez zuen ahorik ireki. Begira geratu nintzaion. Bera ere begira-begira zegokidan: nolana ere den, begiak niregan iltzaturik jarraitzen zuen, hotz eta axolagabe, oso modu nahasgarri eta desatseginean.

—Eseri —esan zuen mutilak, zakar—. Berehala etorriko da.

Obeditu egin nuen. Eta eztarria garbitu, eta Juno gaiztoari deitu nion, zeinak ontzat izan baitzuen, bigarren ikustaldi honetan, isatsaren punta astintzea, ezaguna ninduen adierazgarri.

—Animalia ederra! —hasi nintzen berriro—. Kumeak kentzeko asmoa al duzu, andrea?

—Ez dira nireak —esan zuen andre anfitrioi adiskidetsuak, Heathcliffek berak erantzungo zukeen baino ere urrunkorrago.

—A! Hauetarikoak dira zure kutunak? —jarraitu nuen, katuak ziruditen zerbaitez beterik zegoen kuxin ilun baten aldera itzultzen nintzela.

—Zaila horiek kutuntzat hartzea! —ohartarazi zuen andreak mespretxuz.

Zoritzarrez, hildako untxi pila bat zen. Berriz ere eztarria garbitu, eta tximiniara hurreratu nintzen, arrats gozakaitzari buruzko nire iruzkina berrituz.

—Ez zenuen irten behar —esan zidan andreak, altxatu eta tximiniako apaletik poto pintatuetariko bi hartzen zituelarik.

Lehen zegoen lekuan, argitatik babesturik zegoen andrea. Orain, berriz, garbi ikusten nituen haren soin-irudi guztia eta begitartea. Liraina zen, eta, itxuraz, neskazarotik irten berria. Soin-egitura miresgarria zuen, eta nik inoiz ikusteko plazera izan dudana aurpegi txiki xarmantena: hazpegi finak,

larruazal oso zuria; ile-kiribil horailak, edo, hobeto esan, urre-kolorekoak zetozkion solte lepo delikatuaren gainera; eta halako begiak, ezen, so atseginekoak izan balira, ezin saihestuzkoak baitzirerateken. Nire bihotz sentiberaren zorionerako, haiek erakusten zuten sentimendu bakarra destainaren eta halako desesperazio baten arteko zerbait zen: batere naturala ez, haietan agertzeko.

Potoak ia helmenetik kanpo geratzen zitzaizkion, eta laguntzeko mugimendu bat egin nuen. Urrea kontatzen lagundu nahi liokeen batengana diruzale bat nola, hala jiratu zen andrea niregana.

–Ez dut zure laguntzarik behar –jaurti zidan brastakoan–. Har ditzaket neuk.

–Barka iezadazu –erantzun nion segituan.

–Tea hartzeko esanda al zaude? –galdetu zidan, bere soineko beltz txukunaren gainetik mantal bat lotu eta koilarakada bat te-orri potoaren gainean gelditu zuela.

–Pozik hartuko dut kikara bat –erantzun nion.

–Esanda al zaude? –galdetu zuen berriro.

–Ez –esan nuen, erdi irribarrez–. Zu zara pertsona egokia gonbita egiteko.

Bota zuen tea atzera potora, koilara eta guzti, eta andrea aulkira itzuli zen muturturik, bekokia zimur, eta azpiko ezpain gorria luzaturik, negarrez hastera doan haur bat bezala.

Bien bitartean, mutilak txamarra ondo zarpail bat hartua zuen bizkarretik, eta, suaren aurrean tente jarririk, zeharka begiratzen zidan, gure artean auzi ikaragarriren bat konpondu gabe bagenu bezala. Duda egiten hasi nintzen hura zerbitzari bat ote zen. Haren jantzia eta hizkera, zakarrak ziren biak; ez zuten Heathcliff jaun-andreengan nabari zen gorengotasunik batere. Haren ile-kiribil beltzaran lodiak nahastuta eta zaindu

gabe zeuden; ile-zangoak masailetara zabaltzen zitzaizkion zaborbarkari, eta eskuak belztuak zeuzkan, esku-langile arrunt batek bezala. Eta hala ere, jarrera askea zuen, burgoia kasik, eta ez zuen erakusten zerbitzari baten inolako prestasunik etxekoandreaken zerbitzuan.

Haren giza mailaren froga garbirik ez eta, iritzi nion hobe izango nuela jaramonik ez egitea haren jokabide bitxiari, eta, handik bost minutura, Heathcliffen sarrerak arindu zidan, neurri batean, egoera deseroso hura.

–Ikusten duzu, jauna; etorri naiz, agindu bezala! –esan nion, pozten nintzenarena eginez–. Eta beldur naiz eguraldi txarrak hemen atxikiko nauela ordu erdiren batean, baldin eta tarte horretarako aterpea eskain badiezadakezu.

–Ordu erdi batean? –esan zuen hark, bere jantzietatik maluta zuriak astinduz–. Ez dakit nola aukeratu duzun elurerauntsiaren handiena paseoan etortzeko. Ba al dakizu istingadietan galtzeko arriskua hartzen duzula? Zohikaztegi hauek ezagutzen dituen jendeak ere sarritan galdu ohi du bidea gaur bezalako arratsetan, eta benetan diotsut ez dagoela aldaketarik espero izaterik oraingoz.

–Agian, zure morroiatariko bat har nezake gidari, eta Etxaldean geratu ahal izango litzateke bihar goiza arte... Utziko al zenidake bat?

–Ez, ezingo nuke.

–A, noski! Ondo da; hortaz, neure sumaz fidatu beharko dut.

–Hm!

–Tea egin behar al 'zu? –galdetu zuen jaka zarpaileko gizonezkoak, bere begirada basatia niregandik andre gaztearengana bihurtuz.

–Horrek hartu behar al du? –galdetu zuen andreak, Heathcliffi mintzatuz.

–Zuk, prestatu, ados? –izan zen erantzuna, hain modu basatian esana, ezen ikaratu egin bainintzen. Hitzok esateko erabilitako doinuak errotikako gizatxar baten izaera erakusten zuen. Handik aurrera ez nuen gogorik izan Heathcliffi gizon aparta deitzeko.

Prestaketak amaitu zirenean, honela egin zidan Heathcliffek gonbita:

–Tira, jauna, aurreratu aulkia. –Eta denok, larregizon gaztea barne, mahaiaren ingurura arrimatu ginen. Isiltasun latz bat nagusitu zen otordua irensten genuen bitartean.

Pentsatu nuen, nik sortu banuen hotzaldia, nire egitekoa zela hura aienatzeko ahalegina egitea. Ez zen posible haiek egunero hain goibel eta uzkur egotea, eta ezinezkoa zen, umore gaiztoenekoak zirela ere, egunero denek bekozko hura erakustea.

–Harrigarria da –hasi nintzen, te-kikara bat hustu eta beste bat betetzeko tartean–, harrigarria da nola moldatzen dituen ohiturak gure gustuak eta ideiak. Askok ez luke usteko zuk mundutik hain bazterturik daramazun bizimodu honetan zorientasunik izan daitekeenik, Heathcliff jauna. Hala ere, ausartuko nintzateke esatera ezen, familia inguruan duzularik, eta zure emazte atsegina etxeko eta bihotzeko jegin babesle duzularik...

–Nire emazte atsegina! –eten zuen Heathcliff jaunak, irri gaizto ia deabruzko bat aurpegian–. Non da nire emazte atsegin hori?

–Zure emaztea, Heathcliff andrea esan nahi dut.

–Bai, noski. Esan nahiko duzu haren espirituak aingeru zaindariaren lekua hartu duela, eta Gailur Ekaiztsuen patuaren jagole dagoela, nahiz eta gorputzez joana izan. Ezta?

Laprast egin nuela konturaturik, okerra zuzentzen saiatu nintzen. Ikusi behar nuen desberdintasun handiegia zegoela bi lagunon adinen artean andre-gizonak izan zitezkeela pentsatzeko. Batak berrogei bat urte izango zituen: adimen beteko sasoia, zeinean gizonak gutxitan egiten baitute neska gazteak berekin maitasunez ezkonduko diren ilusiorik; amets hori gure gainbeherako urteen kontsolagarri gordetzen da. Besteak, berriz, ez zirudien hamazazpi zituen ere.

Bat-batean otu zitzaidan: «Nire aldameneko oies hau, tea gopor batetik edaten eta ogia eskuak garbitu gabe jaten ari den hau izan daiteke emakume gaztearen senarra: Heathcliff jaun gaztea, jakina. Hona hemen bizirik ehortzita egotearen ondorioa: andreak basagizon horrengana egotzi du bere burua, pertsona hobeak badirela ez jakite hutsez! Tamal handia. Kontuz ibili behar dut ez dadin niregatik bere hautuaz damu».

Azken gogoeta horrek harropuzkeria lirudike; ez zen halakorik. Nire ondokoa ia nazkagarria iruditzen zitzaidan. Banekien, esperientziaz, nik erakargarritik, asko ez bada ere, zerbait banuela.

–Heathcliff andrea erraina dut –esan zuen Heathcliffek, nire susmoa egiaztatuz. Hori esatean, begirada bitxi bat igorri zuen andrearen aldera: gorrotozko begirada bat; edo, bestela, haren aurpegiko gihar multzoa oso bestelakoa da eta ez du, gainerako jendearenak bezala, arimaren mintzaira interpretatzen.

–A, jakina. Orain ulertzen dut. Zu zara, beraz, maitagarri ongile honen jabe zorionekoa –adierazi nuen, nire ondokoarengana bihurtuz.

Hori, berriz, aurrekoa baino okerragoa izan zen. Mutila txinparta bezala gorritu zen, eta eskumuturra itxi zuen, erasotzeko asmoa balu bezalako itxura guztiarekin. Baina gero, nonbait, bere onera itzuli, eta madarikazio ikaragarri bat hortz artean

nire kontra jaurtiz baretu zuen ekaitza; nik, ordea, entzungor egiteko kontua izan nuen.

–Zorte txarra zure aieruetan, jauna –ohartarazi zuen nire anfitrioiak–. Gutariko inork ez du zure maitagarri on horren jabe izateko pribilegiorik. Hila du senarra. Esan dut erraina dudala; beraz, nire semearekin ezkondua izan behar.

–Eta mutil hau... .

–Ez da nire semea, ez horixe.

Heathcliffek irri egin zuen berriro, aker haren aitatasuna berari egozte txantxa astunegia balitz bezala.

–Hareton Earnshaw da nire izena –orro egin zuen besteak–, eta aholkatzen dizut errespetu dezazula!

–Ez diot errespetuari faltatu –erantzun nion, neure artean barrez, hark bere burua aurkezten erabili zuen duintasuna ikustean.

Mutilak niri tinko begira jarraitu zuen, baina ez nuen lanik hartu haren begiradari hark beste denboran eusten, beldur bainintzen ez ote nuen tentazioa izango dela belarrondoko bat emateko dela barregura algara bihurtzeko. Ezbairik gabe, lekuz kanpo sentitzen hasi nintzen familiarte atsegin hartan. Giro espiritual triste hark hartu zuen gaina, eta aski eta sobera neutralizatu nire inguruko erosotasun fisikoen distira, eta erabaki nuen kontuz menturatu beharko nuela hirugarren aldiz teilatupe hartara.

Jateko lana bukatu, eta lagunarteko solasaldi baterako hitzik inork ateratzen ez zuenez, leiho batera hurbildu nintzen eguraldiari erreparatzera.

Ikuspegi triste, ikusi nuena: gau beltza zetorren garaia baino lehen, eta ortzia eta muinoak nahasirik ageri ziren haize gogor eta elur itogarri baten zurrunbiloan.

–Ez dut uste posible izango dudarik orain gidari gabe etxera iristea –irten zitzaidan barru-barrutik–. Bideak ezkutatuturik egongo dira honezkero, eta, garbi baleude ere, ozta ikusi ahal izango nuke oinbete aurrerago.

–Hareton, eraman dozena ardi horiek lastategiko loriora. Elurrak estaliko ditu gauean artegian utziz gero; eta jar iezaiezu xafra bat aurrean –esan zuen Heathcliffek.

–Nola moldatu behar dut? –jarraitu nuen nik, haserrea handituz zihoakidalarik.

Nire galderak ez zuen erantzunik izan, eta ingurura begiratu nuenean, ez nuen ikusi Joseph besterik, pertz bat olo-ahi txakurrentzat zekarrela, eta Heathcliff andrea, sutara makurturik, te-potoa bere lekuan uzterakoan tximinia-hegaletik erori zitzaizkion poxpolo sorta bati su ematen entretenitzen.

Josephek, zeraman karga utzi zuenean, begiratu kritiko bat eman zion gelari, eta doinu erlats batean karrankatu zuen:

–Ez tait nola molda zaitezkeen hor alperkeriin eo zerbait okerragoon eoteko, danak kanpoa junda diila! Ezertaako etzea, ordea, ta alferrik da eze esatea. Etzea inoiz zentzatuko, eta dea-bruna jungo zea zuzenean, aurretik zue ama jun tzan bezela!

Uste izan nuen, une batez, elokuentzia hura niri zuzendua zela, eta, aski errabiaturik, alproja adindun harengana abiatu nintzen hura ostikoz atetik kanpora bidaltzeko asmoz. Heathcliff andrearen erantzunak geldiarazi ninduen, ordea.

–Hipokrita zahar mihi-gaizto hori! –erantzun zion andreak–. Ez al zara beldur hezur eta mami desagertzeko dea-bruaren izena aipatzen duzun bakoitzean? Abisu ematen dizut, ez nazazula proboka; bestela, abduzitua izan zaitezela eskatuko dut mesede berezi gisa! Geldi hor! Begira honi, Joseph –jarraitu zuen, apal batetik liburu luze ilun bat hartzen zuela–. Erakutsiko dizut zenbat aurreratu dudan Magia Beltzean: berehala

gai izango naiz etxean garbiketa egiteko. Behi gorria ez zen kasualitatez hil, eta zure erreuma ere ozta esan daiteke agerpen probidentziala denik!

–Ene! Gaiztoa! Gaiztoa! –esan zuen zaharrak arnasestuka–. Jainkoak libra gaitzala gaitzetik!

–Ez, zu kondenaturik eta galdurik zaude! Alde, edo kalte larriren bat egingo dizut! Argizariz eta buztinez moldatuko zaituztet denok, eta nik ezarritako mugak pasatzen dituen lehenengoari... ez dut esango zer gertatuko zaion, baina ikusiko duzue! Zoaz, ez dizut begirik kentzen!

Sorgintxoak itxurazko gaiztotasun bat agertu zuen bere begi ederretan eta Joseph, benetako laborriak dardaraz, presaka irten zen, zihoan eran otoika eta «gaiztoa» esaka.

Pentsatu nuen andrearen jokabide hura halako jolas ilunen batek eragina izango zela; eta, orduan, biok bakarrik geratu ginelarik, nire larritasunean interesa zedin saiatu nintzen.

–Heathcliff andrea –esan nuen benaz–. Barkatu behar didazu zu gogaitzea. Ausartu egingo naiz, zeren eta, aurpegi horrekin, ziur naiz bihotz onekoa izan behar duzula nahitaez. Seinala iezazkidazu erreferentziatzko gune batzuk, haien bitartez etxerako bideari igarri diezaiodan: ez dakit hara nola iritsi zuk Londresera nola iritsi dakizun baino gehiago!

–Itzul zaitetz etorri zaren bidetik –erantzun zidan, eroso jartzen zelarik aulki batean, kandela batekin, eta liburu luzea aurrean zabaldurik–. Aholku laburra da, baina eman dezakedan zuhurrena.

–Orduan, entzuten baduzu hilik aurkitu nautela zingira batean edo elurrez beteriko hobi batean, ez al dizu kontzientziak xuxurlatuko neurri batean zure erruz izan dela?

–Nola hori? Nik ezin dizut lagun egin. Ez lidakete utziko joaten ezta lorategiko harresi muturreraino ere.

–Zuk? Damu nuke zuri eskatzea atalasea zeharka dezazula, nire komenentziarako, honelako gau batean –goratu nuen boza–. Nahi dudana da zuk nondik joan behar dudan esatea, ez zuk niri bidea erakustea; edo, bestela, Heathcliff jauna konbentzitzea, gidari bat eman diezadan.

–Nor? Bera, Earnshaw, Tzila, Joseph eta ni gaude. Zein eraman nahi duzu?

–Ez al dago morroirik baserrian?

–Ez, horiek dira guztiak.

–Orduan, hortik ondorioztatzen da beharturik nagoela hemen geratzera.

–Hori etxejabearekin erabaki beharko duzu. Nik ez dut zerikusirik horretan.

–Espero dut ikasbiderako izango duzula hau, buruak eman ahala ez ibiltzeko muino hauetan ibilaldiak egiten –egin zuen oihiu Heathcliffen ahots gogorak sukaldeko sarreratik–. Hemen geratzeari dagokionez, berriz, ez daukat bisitarientzat lo-lekurik. Haretonen edo Josephen ohean lo egin beharko duzu, geratzen bazara.

–Gela honetantxe lo egin dezaket aulki batean –erantzun nion.

–Ez, ez! Kanpotarra kanpotar da beti, dela aberats edo pobre. Ez zait ondo iruditzen inori etxearen esparruan egoten uztea ni begira ez banago! –esan zuen hezi txarreko doilor hark.

Irain horren aurrean ia galdu nuen pazientzia. Disgustuzko adierazpen bat ezpainetaratu eta, Heathcliffen ondotik oldar batean pasatuz, larrainera jo nuen, Earnshawrekin tupust eginez nire tarrapatan. Hain zegoen ilun, ez nuen ikusten irteteko biderik, eta, hara eta hona nenbilerarik, haien arteko gizabidearen beste ale bat entzun nuen.

Hasieran mutila niri laguntzeko prest agertu zen.

Emily Brontë

–Lagunduko diot parkeraino –esan zuen.

–Putza lagunduko diozu! –adierazi zion nagusiak, edo zuena zuelakoak–. Eta zeinek zaindu behar ditu zaldia, e?

–Gizon baten bizia garrantzi handiagokoa da arrats batez zaldiei jaramonik ez egitea baino; norbaitek joan behar du –murmurikatu zuen Heathcliff andreak, nik espero baino onberago.

–Ez zuk aginduta! –ihardetsi zuen Haretonek–. Estimurik badiozu, hobe duzu isilik egon.

–Bada, espero dut haren mamuak pertsegituko zaituela; eta Heathcliff jaunak ez duela lortuko beste maizterrik Etxaldeak hondoa jo arte –esan zuen andreak zorrotz.

–Aitu, aitua, madarikazioa esaten ai zaie! –murmurikatu zuen Joseph, haren aldera hurreratu bainintzen.

Eztabaida entzuteko moduko distantziara ari zen Joseph, behiak jezten, argiontzia baten argitan, zeina zeremoniarik gabe kendu bainion, eta, goizean atzera bidaliko niola deiadar eginez, albate hurbilenera abiatu nintzen lasterka.

–Nausi, nausi, badaamala ne argiontzia! –garrasi egin zuen agureak, niri atzetik segika–. Ei, Gnasher! Ei, txakurra! Ei, Wolf, heldu horri, heldu horri!

Atetxoa zabaltzean, bi munstro iletzuk lepora salto egin zidaten, ni lurrera irauliz eta argia itzaliz, eta, bitartean, Heathcliffen eta Haretonen algara nahasiek ezarri zioten gailurra nire errabiari eta umiliazioari.

Zorionez, bazirudien piztia haien apeta areago zela atzaparrak luzatzea, ahoa zabaltzea eta isatsa astintzea, ni bizirik jatea baino. Ez zidaten uzten, ordea, berriro altxatzen, eta etzanda egon behar izan nuen harik eta haien nagusi asmo gaiztokoei ni libratzeko gogoak eman zien arte. Orduan, kapela gabe eta amorrak dardaraz, irteten uzteko agindu nien gizatxar haiei –beren arriskura, minutu bat gehiago han edukitzen banin-

du ten— errepresali azko me hatxu inkoh erente batzuk egiten nizki elarik, hain gogortasun handikoak beren zehazgabe an, ezen Lear Erregea² gogorazten baitzuten.

Nire zalapartaren suharrak sudurreko odol-jario oparo bat eragin zidan, eta, hala ere, Heathcliffek barrez jarraitzen zuen, eta nik errietan. Ez dakit nola bukatuko zatekeen eszena hura, inguruan pertsona bat egon ez balitz neu baino zentzudunagoa, eta nire ostatu-emailea baino borondate hobekoa. Tzila izan zen, etxe-zerbitzari sendo hura, azkenean iskanbilaren nondik norakoak jakitera irten zena. Pentsatu zuen haietarikoren batek eskua dantzatu izango zidala, eta, nagusia atakatzen ausartzen ez eta, alproja gazteenaren aurka itzuli zuen bere mihi-artilleria.

—Hara, Earnshaw jauna —egin zuen oi hu—. Ez dakit zer egin behar duzun hurrena. Jendea hil behar al dugu geure ate-losan bertan? Ikusten dut etxe hau ez dela niretzat e gina. Begira gizagaixoari, arnasa ezin bueltaturik dago! Ixo! Ixo! Ez duzu horrela jarraitu behar. Zatoz barrura, eta nik sendatuko dizut hori; tira, nahikoa duzu.

Hitz horiek esanda, bota zidan bat-batean pintako ontzi bat ur izoztu lepotik behera, eta sukaldera arrastatu ninduen. Heathcliff jauna atzetik etorri zitzaigun, bere menturazko alaitasuna berehala agortu eta ohiko goibeltasunera itzulirik.

Ni oso ondoezik nengoen; zorabiatu rik, eta indarge; behartu rik, beraz, nahitaez, haren teilatupean ostatua onartzera.

2 *Lear Errege*, William Shakespeare. Larrakoetxea'tar Bedita'k euzkeraratura (II. ekitaldia):

...nik zuoi bioi egingo dautzuedan asperkuneaz mundu guztia... Nik egiteko dodazan gauzak, zeintzuk eta zelangoak izango dirian neuk be ez dakit oraindik: baña lurra ikaratzekoak izango dira.

Emily Brontë

Heathcliff jaunak niri kopa bat brandy emateko esan zion Tzilari, eta bera barruko gelara pasatu zen. Bitartean, Tzilak bere atsekabea erakutsi zidan nengoen egoeran egoteagatik, eta, nagusiaren aginduak bete zituenean, eta hari esker ni zertxobait suspertu, ohera zuzendu ninduen.